

OSASUN SAILA**Zk-1964**

AGINDUA, 2003ko martxoaren 18koa, Osasun sail-buruarena, irabazi asmorik gabeko Autolaguntza Elkartea eta Taldeei dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena. Ezinbesteko baldintza izango da, batetik, egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izatea eta, bestetik, jarduerak asistentzia-sistema publikoarekin elkarlanean burutzea eta hezkuntza sanitarioari lotuta egotea.

Osasunerako hezkuntza, bizimodu osasungarriak bultzatzen dituen, ezinbesteko tresna da osasuna zaintzeko eta gaixotasunei aurrea hartzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan, gero eta gehiago ari da sartzen osasunerako hezkuntza osasun programen plangintzan eta kudeaketan.

Hori horrela, beren ezaugarriengatik eta osasun/gaixotasunaren alorrean duten esperientziagatik osasun arazo zehatzen inguruan elkartutako pertsona edo taldeen eta, oro har, populazioaren bilgune eta komunikazio eta laguntza gune bihurtu diren erakundeen lan-kidetzak onuragarri eta ezinbestekotzat jotzen du Osasun Sailak, bizi-ohitura osasuntsuak transmititzen baitituzte.

Hori horrela, eta abenduaren 27ko 8/2002 Legeak dionaren arabera

XEDATU DUT:**1. artikulua.**— Eremua eta helburua.

1.— Irabazi asmorik gabeko Autolaguntza Elkartea eta Taldeei dirulaguntzak emateko deialdia egitea. Ezinbesteko baldintza izango da, batetik, egoitza ofiziala Euskal Autonomia Erkidegoan izatea eta, bestetik, jarduerak asistentzia-sistema publikoarekin elkarlanean burutzea eta hezkuntza sanitarioari lotuta egotea eta jarduera horiek 2003 urtean zehar gauzatzea aipatutako autonomia erkidegoan.

2.— Deialdi hau lehiaketa bidez ebatziko da.

2. artikulua.— Zenbatekoa.

1.— Emandako dirulaguntza guztien zenbateko globala gehienez ere hirurehun mila (300.000) eurokoa izango da.

2.— Laguntza bakoitzaren zenbatekoarekin, aurkeztutako aurrekontu garbiko %100 ordaintzera iritsi ahal izango da; beti ere, kontuan hartuta helburuek Osasun Sailak ezarritakoekin bat egiten duten, bestelako finantzazio iturririk dagoen, proiektuak izango duen errentabilitate soziala eta azalpen txostena eta proposatzen den proiektua edo lana.

DEPARTAMENTO DE SANIDAD**Nº-1964**

ORDEN de 18 de marzo de 2003, del Consejero de Sanidad, por la que se convocan ayudas dirigidas a Asociaciones y Grupos de Autoayuda sin ánimo de lucro en el campo de la salud, con sede oficial en la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuyas actividades se relacionen con la Educación Sanitaria y la colaboración con el dispositivo asistencial público.

La Educación para la Salud es un instrumento indispensable para la promoción de la salud y la prevención de enfermedades mediante la instauración de «estilos de vida» sanos. La integración de la Educación para la Salud en la planificación y gestión de los programas de salud se va haciendo una realidad en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En este contexto, el Departamento de Sanidad estima positiva e indispensable la colaboración de aquellas organizaciones que, por sus características y experiencia en el campo de la salud/enfermedad, se convierten en puntos de encuentro, comunicación y apoyo en materia de transmisión de hábitos saludables de vida tanto a nivel de población general como de personas o grupos asociados en torno a problemas concretos de salud.

En su virtud, y de conformidad con el contenido de la Ley 8/2002, de 27 de diciembre

DISPONGO:**Artículo 1.**— **Ámbito y objeto.**

1.— Se convocan ayudas dirigidas a Asociaciones y Grupos de Autoayuda sin ánimo de lucro con sede oficial en la Comunidad Autónoma del País Vasco que realicen actividades de Educación Sanitaria y colaboración con el dispositivo asistencial público durante el año 2003 en dicha Comunidad Autónoma.

2.— La presente convocatoria se resolverá por el procedimiento de concurso.

Artículo 2.— **Importe.**

1.— El importe global de todas las ayudas concedidas no podrá superar la cantidad de trescientos mil (300.000) euros.

2.— La cuantía de cada una de las ayudas podrá cubrir hasta el 100% del presupuesto neto presentado, siempre teniendo en cuenta la coincidencia de los objetivos con los expresados por este Departamento de Sanidad, la existencia de otras fuentes de financiación, la rentabilidad social prevista y la memoria explicativa y el proyecto o el trabajo a realizar que se propone.

3.– Gastu orokorrak ordaintzeko, emandako dirulaguntzaren %25era arte erabili ahal izango da, gehienez; kontuan izanik jarduerak burutzeko egin behar diren joan-etorrietako, lokomozio eta ekipamenduko gastuak horien barruan sartzen direla.

3. artikulua.– Dirulaguntza ukatzeko irizpide orokorrak.

1.– Jardueri ez zaie dirulaguntzarik emango baldin eta jardueraren gastu orokorrek guztirako aurrekontuaren %25etik gora jotzen badute, joan-etorrietako, lokomozio, ostatuko eta ekipamenduko gastuak horien barruan sartzen direlarik.

2.– Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak edo Osasun Sailarekin berariazko ituna sinatu duten zentroek burututako jarduerak errepikatzen dituzten proiektuei ez zaie dirulaguntzarik emango.

3.– Izaera bereko beste dirulaguntzaren bat dela medio dirua itzultzeko edo zehatzeko prozedura baten menpe dauden elkarteek ezin izango dituzte dirulaguntza hauek jaso.

4. artikulua.– Dirulaguntzaren bateragarritasuna.

Beste edozein eratako laguntzak jasotzea ez da eragozpen izango laguntza hauek jasotzeko. Dena dela, jarduera berberarako, erakunde edo entitate guztietatik jasotako dirulaguntzak jardueraren kostu osoa gainditzen badute, Agindu honen arabera emandako dirulaguntza zenbatekoari soberakina kenduko zaio.

5. artikulua.– Esleipen irizpideak.

1.– Kasu bakoitzean honako hauek baloratuko dira:

a) Euskadiko Osasun Planaren jomugak lortzera bideratutako jarduera bakoitzean edukiak dauden helburuen lorpenarekin daukan loturaren maila, bereziki helburu hauek dituztenekin: arrisku bereziko talde jakinen artean (nerabeak, emakumeak...) edota populazioaren artean, oro har, tabakismoari aurrea hartzea eta gutxitzea, alkoholismoa gutxitzea; elikadura eta nutrizio ohitura osasungarriak bultzatzea, ariketa fisikoa sustatzea eta, azkenik, farmakoen eta bestelako baliabide sanitarioen erabilera egoki egitea.

b) Proiektuaren kalitate teknikoa -proiektuan diruz laguntzeko jarduera/k sartzen d(ir)a- eta errentagarritasun soziala: helburuak, itutzat hartzen den populazioaren definizioa, helburuak lortzeko proposaturiko jardueren egokitzapena, jardueren egutegia, proiektuak izan lezakeen eragina, hautaturiko ebaluazio-adierazleak eta pertsona onuradun posibleen kopurua.

c) Diruz laguntzeko jarduera sartuta dagoen programaren jarraitasuna (lehenetasuna emango zaie aurreko deialdietan diruz lagundu eta garatu diren proiektuei, baldin eta orain artean egindakoari zuzen irizten bazaio); itu-populazioaren parte hartzea (jarduerak helburu dituen pertsonen jarduera hori lantzen eta garatzen parte hartzen badute, lehenetasuna izango du);antzeko

3.– Como máximo se podrá destinar hasta un 25% de la subvención concedida a cubrir gastos generales, incluidos los gastos derivados de dietas, locomoción, alojamiento y equipamiento para llevar a cabo las actividades programadas.

Artículo 3.– Criterios generales de exclusión.

1.– No serán objeto de ayuda aquellas actividades en las que los gastos generales, incluidos los gastos derivados de desplazamientos, locomoción alojamiento y equipamiento superen el 25% del presupuesto total del proyecto.

2.– No serán objeto de ayuda aquellas actividades que dupliquen actuaciones desarrolladas por Osakidetza-Servicio Vasco de Salud o Centros concertados al efecto por el Departamento de Sanidad.

3.– La Asociación beneficiaria de la ayuda no podrá hallarse incurso en procedimiento alguno de reintegro o sancionador iniciado en el marco de subvenciones o ayudas de la misma naturaleza.

Artículo 4.– Compatibilidad de la subvención.

La concesión de estas ayudas será compatible con la obtención de cualquier otro tipo de subvención o ayuda. En el caso de que el importe total de las obtenidas de las diferentes Instituciones o Entidades sea superior, para una misma actividad, al coste total de ésta, se reducirá, en la cantidad correspondiente al exceso, el importe de ayuda concedida de acuerdo con la presente Orden.

Artículo 5.– Criterios de adjudicación.

1.– Se valorarán en cada caso:

a) El grado de adecuación de cada actividad a la consecución de los objetivos contenidos en el Plan de Salud de Euskadi, especialmente en lo relativo a la prevención y reducción del tabaquismo en determinados segmentos de población particularmente de riesgo (adolescentes, mujeres, etc.) o en la población en general, a la reducción del alcoholismo, a la adopción de pautas saludables de alimentación y nutrición, al fomento del ejercicio físico, y a una correcta utilización de los fármacos y de otros recursos sanitarios.

b) La calidad técnica del proyecto, en el que se integran la actividad o actividades subvencionables, y su rentabilidad social (objetivos, definición de la población diana, adecuación de las actividades propuestas para la consecución de los objetivos, calendario de actividades, impacto previsto, indicadores de evaluación seleccionados y el número de personas beneficiarias potenciales).

c) La continuidad del programa, en el que se haya integrada la actividad subvencionable (se dará prioridad a aquellas actividades que se hayan desarrollado y subvencionado en las convocatorias anteriores, siempre que la evaluación de las mismas haya sido satisfactoria); la participación de la población diana (se dará prioridad a aquellas actividades en cuya elaboración y desa-

jardueradun programarik ez izatea (Osasun Sailak antzeko proiekturik egiten badihardu edo antzeko proiekturen bat diruz laguntzen badu, proiektu horri dirulaguntza uka diezaioke); diruz laguntzeko jarduera gauzatzeko, eskatutako dirulaguntzaz gainera, kanpoko edo barneko dirulaguntza jasotzea beste erakunderen baten aldetik; eta jarduera-eremua (lehentasunekoak izango dira: populazio-hedadurako eremu zabalena duten ekintzak, eta EAEan federatuta dauden Elkarteek edo federatu gabekoek aurkeztutako ekintza bateratuak).

2.– Aurreko atalak jarraian adierazten den eran baloratuko dira:

– Adierazitako lehentasunekiko egokitzapen-maila: %30.

– Kalitate teknikoa: %30.

– Balorazioko beste zenbait irizpide orokor: %40.

6. artikulua.– Eskaria eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskaria egiteko, Agindu honetako I. Eranskinean agertzen den inprimaki normalizatua erabiliko da.

2.– Eskariarekin batera, agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Elkartearen estatutuak edo erregelamendu ofizialak.

b) Aurkeztutako proiektuak edo egin beharreko lanak osasunaren alorrean ekarriko duen onura azaltzen duen txostena.

c) 2003ko jardueren proiektua edo programa: bertan dirulaguntza eskatu den jarduera sartuko da, eta bertan zehaztuko dira: helburuak, zer populaziotarako dagoen zuzendua, irizpideen hautaketa eta lortu nahi den estaldura, materialak eta metodoak, aurreikusten diren emaitzak eta horiek balioesteko parametroak, profesionalak edo arduradunak eta horien prestakuntza eta jardueraren garapenean izango duten partaidetza. Gainera, II. Eranskina bete behar da.

d) Elkartean 2003 urterako aurreikusten diren sarreen eta gastuen aurrekontua.

e) Bestelako finantzazio-iturriei buruzko zinpeko aitortpena dirulaguntza eskatzen den jarduerarako (inskripzio-kuotak, eman zaizkion edo ebazteke dauden bestelako dirulaguntza publiko zein pribatuak etab.).

f) Eskaria egin duen elkarte zerga-betebeharretan egunera dagoela edo horietatik salbuetsita dagoela egiaztatzen duen agiria, dagokion Foru Ogasunak egina.

g) Elkartean Erroldan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia eta Identifikazio Fiskaleko Kodea esleitu zaiola ziurtatzen duen agiriaren fotokopia.

rollo partipen personas que pertenecen a la población diana a la que van dirigidas); la no existencia de programas con actividades equivalentes (en este sentido, podrán no ser tenidos en cuenta aquellos proyectos con actividades paralelas a los que se estén realizando o estén concertados desde el Departamento de Sanidad); la existencia de financiación interna o externa de la actividad subvencionable por otras instituciones además de la solicitada; y el ámbito de actuación (tendrán prioridad las actuaciones con un mayor ámbito de cobertura poblacional así como aquellas presentadas conjuntamente por Asociaciones federadas a nivel de la CAPV o no federadas).

2.– Los apartados que anteceden se valorarán con la ponderación que se hace constar a continuación:

a) Grado de adecuación a las prioridades señaladas: 30%.

b) Calidad técnica: 30%.

c) Otros criterios generales de valoración: 40%.

Artículo 6.– Solicitud y documentación a presentar.

1.– La solicitud se cumplimentará en el impreso normalizado que figura como Anexo I de esta Orden.

2.– La solicitud irá acompañada de los siguiente documentos:

a) Estatutos o Reglamentos Oficiales de la Asociación.

b) Memoria explicativa sobre el interés, en el campo de la salud, del proyecto que se presenta o del trabajo a realizar.

c) Proyecto o programa de actividades para 2003, en el que se halla integrada la actividad cuya subvención se solicita, donde queden puntualmente detallados los objetivos, población a quien va dirigido, criterios de selección y cobertura a alcanzar, material y métodos, resultados previstos y parámetros de valoración de los mismos, profesionales o personas responsables especificando su preparación y grado de participación en el desarrollo de la actividad. Además, deberá cumplimentarse el Anexo II.

d) Presupuesto de gastos e ingresos de la Asociación previstos para el año 2003 en relación a la actividad subvencionable.

e) Declaración jurada sobre otras fuentes de financiación para la actividad cuya subvención se solicita (cuotas de inscripción, otras ayudas públicas o privadas concedidas o pendientes de resolución, etc.).

f) Certificación acreditativa de encontrarse la Asociación solicitante al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas y expedida por la correspondiente Hacienda Foral.

g) Copia del certificado de inscripción en el Registro de Asociaciones y fotocopia del documento de adjudicación del Código de Identificación Fiscal.

h) Eskaria egin duen elkarteak Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren egunera dagoela edo horietatik salbuetsita dagoela egiaztatzen duen agiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egina.

i) Bankuko datuak, Agindu honetako III. Eranskinen protokoloa erabiliz.

Horretaz guztiaz gain, komenigarri iritzitako agiri guztiak aurkeztu ahal izango dira.

7. artikulua.— Eskariak aurkezteko lekua eta epea.

1.— Dirulaguntza-eskariak aurkezteko epea hilabeteak izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharanetik kontatzen hasita.

Eskaria Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko zuzendariari igorriko zaio, Osasun sailburuordeari zuzenduta (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.— Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren gainontzeko tokietan eta moduetan ere aurkeztu ahal dira eskariak (aipatu Legea 4/1999 Legeak aldatu zuen).

8. artikulua.— Lehiaketaren ebazpena.

1.— Dirulaguntzak Osasun Saileko sailburuordearen ebazpenaren bitartez emango dira, horretarako Osasun sailburuak izendatutako batzordearen proposamenez. Batzorde hori Osasun sailburuordeak, bi zuzendarik eta teknikari batek osatuko dute.

2.— Osasun sailburuordearen ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osasun sailburuari. Horretarako epea hilabeteak izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik kontatzen hasita. Hori guztia lehen aipatutako 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emaniko idazkerari jarraiki.

3.— Eskariak aurkezteko epea amaitu ondorengo bost hilabeteetan berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, eskariak gaitzetsi egin direla ulertuko da, 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako. Hala ere, horrek ez du esan nahi Administrazioa berriazko ebazpena ematera behartua ez dagoenik.

9. artikulua.— Elkarte onuradunaren betebeharrak.

Agindu honetan arautzen diren dirulaguntzak jasotzen dituen elkarteak honako hauek bete beharko dituzte:

a) Dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, eman diren dirulaguntzak jakinarazten dituen EHAA-n esleipenen Ebazpena argitaratzen den datatik hasita, hamabost

h) Certificación acreditativa expedida por la Tesorería General de la Seguridad Social, de encontrarse la Asociación solicitante al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social o exenta de ellas.

i) Datos bancarios utilizando el protocolo del Anexo III de esta Orden.

Además, se podrá aportar la documentación complementaria que se considere oportuna.

Artículo 7.— Plazo y lugar de presentación de las solicitudes.

1.— La solicitud de ayuda deberá presentarse en el plazo de un mes, a contar a partir del día siguiente a la fecha de publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

La solicitud, dirigida al Viceconsejero de Sanidad, se remitirá al Director de Salud Pública del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco (C/ Donostia 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.— Asimismo la solicitud podrá presentarse en los demás lugares y formas indicados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común (modificada por Ley 4/1999).

Artículo 8.— Resolución del concurso.

1.— Las ayudas serán otorgadas por Resolución del Viceconsejero de Sanidad, a propuesta de la Comisión nombrada al efecto por el Consejero de Sanidad, que estará compuesta por el Viceconsejero de Sanidad, dos Directores y un técnico, todos ellos del Departamento de Sanidad.

2.— Contra la Resolución del Viceconsejero de Sanidad podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Sanidad, en el plazo de un mes, contado a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con el artículo 114 y siguientes de la citada Ley 30/1992, en la redacción dada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

3.— Transcurridos cinco meses desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes sin que se haya notificado Resolución expresa, las solicitudes podrán entenderse desestimadas, a los efectos de lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992 antedicha, sin perjuicio de la obligación de la Administración de resolver expresamente.

Artículo 9.— Obligaciones de la asociación beneficiaria.

La asociación beneficiaria de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberá cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si, en el plazo de quince días tras la fecha de publicación de la Resolución de adjudicaciones en el BOPV

eguneko epean, elkarteak berariaz eta idatziz uko egin ez badio, onartu egin duela ulertuko da.

b) Dirulaguntza eman den helburu zehatzetarako erabiltzea.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei buruz beren zereginetarako eska lezaketan informazioa ematea.

10. artikulua.— Beste betebeharrak.

Dirulaguntza jasoz gero, elkarteek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren laguntza jaso dutela adieraziko dute beren programa, publizitate eta gainontzeko agerietan. Foiletoak edo bestelako argitalpenak atera gero, azalaren atzealdean, Copyright-eko mantxetaren azpian, letra berberarekin eta lauki batean sartuta, testu hau jarriko da: «Argitalpen honek Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren dirulaguntza jaso du, osasun-hezkuntzako jarduerak bultzatzen dituzten irabazi asmorik gabeko Autolaguntza Elkarte eta Taldeei dirulaguntzak emateko Programaren barruan.»

11. artikulua.— Ordaintzeko era.

1.— Emaniko dirulaguntzaren ordainketa era honetan egingo da:

– %70 dirulaguntza ematen den unean, behin esleitzeko ebazpena onartu eta argitaratu ondoren.

– Gainerako %30 honako agiri hauek jaso ondoren:

a) Aurreikusitako helburuen lorpen maila deskribatzen duen txosten bat, horretarako, eskaria aurkeztu zenean balioespena egiteko parametroei jarraituz, Agindu honetako 6.2.b) artikuluan aipatzen den dokumentazioaren arabera, helburu horietako bakoitza zenbateraino bete den baloratzen duena;

b) Eginiko gastua justifikatzen duten jatorrizko egiaztagiriak;

c) Foru Ogasunak emaniko ziurtagiria, Elkarteak bere zerga-betebeharrak dagokienez egunera edo horietatik salbuetsia dagoela kreditatzen duena;

d) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak emaniko ziurtagiria, Elkarte eskatzailea Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunera dagoela edo horietatik salbuetsia dagoela kreditatzen duena.

Dokumentazio hau guztia aurkezteko epemuga 2004ko urtarrilaren 31 izango da.

2.— Salbuespen gisa kasu berezietan eta laguntzak esleitzeko Batzordearen iritzia arabera eta diruz lagundutako jardueraren ezaugarriak kontuan hartuta, dirulaguntza ordainketa bakarrean eman daiteke, behin es-

por la que se notifica la concesión de la subvención, la asociación beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que esta queda aceptada.

b) Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

Artículo 10.— Otras obligaciones.

Caso de concederse la ayuda, la Asociación organizadora deberá hacer constar en sus programas, publicidad y demás documentación el patrocinio del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco. En los casos en que se editen folletos u otro tipo de publicación se incluirá, en el reverso de la portada y debajo de la mancha del Copyright, utilizando el mismo tipo de letra y dentro de un recuadro, el siguiente texto: «El Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco ha subvencionado la presente publicación dentro del Programa de subvenciones a Asociaciones y Grupos de autoayuda sin ánimo de lucro en el campo de la salud, para la realización de actividades de educación para la salud».

Artículo 11.— Forma de pago.

1.— El pago total de la ayuda concedida se efectuará de la siguiente forma:

– Un 70% en el momento de la concesión, una vez aprobada y publicada la Resolución de adjudicación de la misma.

– El 30% restante una vez recibida la siguiente documentación:

a) Memoria-Informe que describa el nivel de consecución de los objetivos previstos, evaluando el grado de cumplimiento de cada uno de ellos siguiendo los distintos parámetros propuestos para realizar la evaluación, cuando se presentó la solicitud y según la documentación referida en el artículo 6.2.b) de la presente Orden;

b) Comprobantes originales justificativos del gasto realizado;

c) Certificado expedido por Hacienda Foral acreditando que la Asociación está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas;

d) Certificado de la Tesorería General de la Seguridad Social acreditando encontrarse la Asociación solicitante al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social o exenta de ellas.

El plazo máximo de presentación de toda esta documentación será el 31 de enero de 2004.

2.— De manera excepcional para casos específicos, y a criterio de la Comisión de adjudicación de ayudas, atendiendo a las características de la actividad subvencionada, se podrá hacer efectiva la subvención en un úni-

leipena egin ondoren.

3.– Jaso den dirulaguntzaren kargura justifikatu ahal izango dira laguntza eman aurretik sorturiko zenbait gastu, baldin dirulaguntza eman zaien programetan barne harturiko jarduera eta kontzeptuen benetako kostuei badagozkie eta gastu horiek 2003 urtean gertatu badira.

12. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzen aldaketa.

Dirulaguntzak esleitzen dituen ebazpena kasu haueetan aldatu ahal izango da: dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzen badira, horien helburua betetzat ematen den kasuan, edota beste edozein erakunde publiko zein pribaturen laguntzak edo dirulaguntzak jaso badira. Horrelakoetan, Osasun Publikoko zuzendariak kitapen-ebazpena emango du eta, bertan, emandako dirulaguntzen zenbatekoak egokituko dira.

13. artikulua.– Ez betetzeak.

Proposatutako jarduerak bete edo antolatu ezik, jasotako laguntzak eta horien legezko interesak itzuli egin beharko dira, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren arabera. Dirulaguntza horiek diru-sarrera publikotzat joko dira ondorio guztietarako.

14. artikulua.– Dirulaguntza eman zaion proiektuaren segimendua.

Osasun Sailak egoki iritzitako gainbegirapen, ikuskapen eta egiaztapenak egingo ditu, xedapen honetan jasotzen diren arauak betetzen direla ziurtatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetan jasotzen ez diren prozedura kontuetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa aplikatuko da, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emaniko idazkeran.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren bihar-munean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko martxoaren 18a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

co pago por la totalidad, una vez otorgada la misma.

3.– Podrán justificarse con cargo a la subvención recibida gastos que se hayan generado con anterioridad a su concesión, siempre que se refieran a costes reales de las actividades y conceptos incluidos en los programas subvencionados y que dichos gastos se hayan producido dentro del año 2003.

Artículo 12.– Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de esta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de subvenciones. A estos efectos, por el Director de Salud Pública se dictará la oportuna Resolución de Liquidación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

Artículo 13.– Incumplimientos.

El incumplimiento o no organización de las actividades propuestas dará lugar a la obligación de reintegrar las ayudas recibidas así como sus intereses legales, de conformidad con lo previsto en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre. Las citadas ayudas tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos.

Artículo 14.– Seguimiento de la actividad subvencionada.

El Departamento de Sanidad realizará las supervisiones, inspecciones y comprobaciones que considere necesarias para asegurarse del cumplimiento de las normas recogidas en esta disposición.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todos aquellos aspectos procedimentales no previstos en la presente Orden, será de aplicación lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en la redacción dada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

Segunda.– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de marzo de 2003.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.ª INCLÁN IRIBAR.

I ERANSKINA
ANEXO I

IRABAZI ASMORIK GABEKO AUTOLAGUNTZA ELKARTE ETA TALDEEI OSASUN HEZKUNTZAKO
 JARDUERAK ANTOLATZEKO EMANGO ZAIZKIEN DIRULAGUNTZAK JASOTZEKO ESKARIA
 SOLICITUD DE AYUDA A ASOCIACIONES Y GRUPOS DE AUTOAYUDA SIN ANIMO DE LUCRO
 PARA LA ORGANIZACIÓN DE ACTIVIDADES DE EDUCACIÓN SANITARIA

ELKARTEAREN DATUAK
DATOS DE LA ASOCIACIÓN

Izen ofiziala
Denominación oficial

Herria
Localidad

P.K.
C.P

Helbidea
Domicilio

Tfnoa
Telef.

Faxa
Fax

Elkarteen Erregistroko Inskripzio Zk.a. IFZ
Nº Inscripción Registro Asociaciones *NIF*

Kideen kopurua Eskatzen den zenbatekoa
N.º de socios *Cantidad total solicitada*

Zuzendaritza Batzordeko kideak
Composición Junta Directiva

Izena <i>Nombre</i>	Kargua <i>Cargo que desempeña</i>
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

PROIEKTUAREN LABURPENA II. Eranskina bete
RESUMEN DEL PROYECTO *Cumplimentar el Anexo II*

BANKUKO DATUAK Hirugarrenaren Datuen Altako inprimakia bete (III. Eranskina)
DATOS BANCARIOS *Cumplimentar el impreso de Alta de Datos de Tercero que aparece en el Anexo III*

Zigilua
Sello:

Sinadura (izena eta kargua)
Firma (nombre y cargo):

OSASUNEKO SAILBURUORDE JAUNA. OSASUN SAILA
 ILMO. SR. VICECONSEJERO DE SANIDAD. DEPARTAMENTO DE SANIDAD

II. ERANSKINA
ANEXO II

Laguntza partziala edo osoa eskatzen den jarduera dagoen programaren izena
(orrialde berdín bat bete programa bakoitzerako)
Nombre del programa en el que se halla la actividad cuya subvención parcial o total se solicita
(rellenar una página similar por cada programa)

Programa zuzentzen zaion kolektiboa
Colectivo a quien va dirigido el programa

Kolektibo hori osatzen duten lagunen gutxi gorabeherako kopurua
Número estimado de personas que componen ese colectivo

Programak 2003 urterako dituen helburuak
Objetivos del programa para el año 2003

1 helburua (hau bezalako atal bat bete helburu bakoitzerako)
Objetivo 1 (rellenar un apartado similar por cada objetivo)

Laguntza eskatzen den ekintzak eta ekintza horien aurreikusitako kostuak
Actuaciones cuya subvención se solicita y costes previstos de las mismas

Jarduera	Kostua	euro.....
<i>Actuación</i>	<i>Coste</i>	

Jarduera	Kostua	euro.....
<i>Actuación</i>		

Jarduera	Kostua	euro.....
<i>Actuación</i>		

Jarduera	Kostua	euro.....
<i>Actuación</i>		

Jarduerak zuzenduko dituen edo parte hartuko duen pertsonal arduraduna(adierazi berorien prestakuntza eta proiektuan izango duten partaidetzaren maila)

Personal responsable que va a dirigir o participar en las actuaciones(especificar su preparación y grado de participación en el proyecto)

Elkarteko bertako pertsonak
Personas de la propia Asociación

Elkartetik kanpoko pertsonak (partaide diren Erakundearen datuak)
Personas de fuera de la Asociación / (datos de la Entidad a la que pertenecen)

2 helburua (hau bezalako atal bat bete helburu bakoitzerako)
Objetivo 2 (rellenar un apartado similar por cada objetivo)

Laguntza eskatzen den ekintzak eta ekintza horien aurreikusitako kostuak

Actuaciones cuya subvención se solicita y costes previstos de las mismas

Jarduera	Kostua	euro.....
<i>Actuación</i>	<i>Coste</i>	
Jarduera	Kostua	euro.....
<i>Actuación</i>	<i>Coste</i>	
Jarduera	Kostua	euro.....
<i>Actuación</i>	<i>Coste</i>	
Jarduera	Kostua	euro.....
<i>Actuación</i>	<i>Coste</i>	

Jarduera zuzenduko dituen edo parte hartuko duen pertsonal arduraduna (adierazi berorien prestakuntza eta proiektuan izango duten partaidetzaren maila)

Personal responsable que va a dirigir o participar en las actuaciones (especificar su preparación y grado de participación en el proyecto)

Elkarteko bertako pertsonak

Personas de la propia Asociación

Elkartetik kanpoko pertsonak (partaide diren Erakundearen datuak)

Personas de fuera de la Asociación (datos de la Entidad a la que pertenecen)

III. ERANSKINA / ANEXO III

DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESATUA <i>ALTA DE DATOS / TERCERO INTERESADO</i>	
HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK <i>DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO (A)</i>	
(2)	N.A.N / I.F.K. <i>D.N.I. / C.I.F.</i>
(2)	Bi abizenak eta izena / Sozietatearen izena <i>Dos apellidos y nombre / Razón Social</i>

HELBIDERATZE-DATUAK <i>DATOS DE DOMICILIACIÓN (B)</i>	
Helbidea <i>Domicilio</i>	
Posta Kodea <i>Código Postal</i>	Udala <i>Población</i>
Lurraldea <i>Provincia</i>	

BANKUAREN DATUAK <i>DATOS BANCARIOS (C)</i>	
(2)	Bankua <i>Banco</i> □□□□.....
(2)	Agentzia <i>Agencia</i> □□□□.....
(3)	K.D K/Korrontea <i>D.C.</i> □□□□ <i>C/Corriente</i> □□□□□□□□□□
(4)	Jabea <i>Titular</i>

Bankuaren adostasuna
Conforme Banco

Sinadura eta zigilua
Sello y Firma (D)

Hirugarrenaren adostasuna
Conforme Tercero

Sinadura eta zigilua
Sello y Firma (E)

Sailaren onespena
*V.ºB.º Departamento
u Organismo*

Baimendutako sinadura
eta zigilua
Sello y Firma autorizada (F)

Kontabilitatearen onespena
V.ºB.º Contabilidad

Baimendutako sinadura
Firma autorizada (G)

IV. ERANSKINA /ANEXO IV

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

- Laguntza eskaria
- [] *Solicitud de ayuda (Anexo I).*
- Elkartearen estatutuen edo erregelamendu ofizialen kopia
- [] *Copia de los Estatutos o Reglamentos Oficiales de la Entidad.*
- 2002ko urteko jardueren txostena, 2002an aurkeztu ez bada
- [] *Memoria de actividades del 2002, si no se ha presentado ya en el 2002*
- Dirulaguntzarekin ordaindu nahi diren jardueren egitasmoa
- [] *Programa de actividades cuya subvención se solicita*
- Proiektuaren edo jarduera programaren laburpena (II. Eranskina)
- [] *Resumen de las actividades cuya subvención se solicita (Anexo II)*
- Gastuen eta diru-sarrereren aurrekontu zehatza (kuotak eta bestelako finantzazio iturriak barne)
- [] *Presupuesto detallado de gastos e ingresos (incluyendo cuotas y otras fuentes de financiación)*
- Helburu berbererako eskatutako bestelako finantzazio iturriei buruzko zinpeko aitortpena
- [] *Declaración jurada sobre otras fuentes de financiación para la misma actividad*
- Elkartea zerga betebeharrak egunera dituela edo salbuetsita dagoela adierazten duen egiaztatzea, Foru-Ogasunak egina
- [] *Certificado expedido por Hacienda Foral acreditando que la Asociación está al corriente de sus obligaciones tributarias o exenta de ellas*
- Elkarteen Erregistroko inskripzio-agiriaren kopia
- [] *Copia del certificado de la Inscripción en el Registro de Asociaciones*
- Identifikazio Fiskaleko agiriaren kopia
- [] *Copia del documento de Identificación Fiscal*
- Elkartea Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunera dituela edo salbuetsita dagoela adierazten duen egiaztatzea, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak egina
- [] *Certificado de la Tesorería General de la Seguridad Social acreditando encontrarse la Asociación solicitante al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social o exenta de ellas*
- Bankuaren datuak (III. Eranskina)
- [] *Datos bancarios (Anexo III)*
- Beste batzuk (zehaztu)
- [] *Otros (especificar)*
-
-